



2025SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2025/06/26

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/05
EGUNA: 2025/06/26
HASIERA ORDUA: 19:00
AMAIERA ORDUA: 19:10
TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Aritz Larrañaga Unanue. (Telematikoki)

Jon Ander Urain de Jesus.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Bertaratzea desenkusutzen du:

Edurne Aristi Careaga.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2025eko maiatzaren 29an eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen, 2025eko maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuraren bileraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote zuen Alkatetza dekretuen harira.

Ez zen egon galdera edo iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Onartzea, hala badagokio, 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorra.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, aurrekontu orokorren likidazioa alkateak onetsiko du, kontuhartzaitzak txostena eman ondoren, eta gero Udalbatzari emango zaio haren berri. Horrela, martxoaren 6ko 103/2025, 104/2025 eta 105/2025 Dekretuen bidez, hurrenez hurren, onartu ziren Debako Udaleko, Itziarko Toki Entitate Txikiko eta Deba Musikaleko 2024ko aurrekontuen likidazioak, dekretu horien berri eman zitzaien Antolakuntza Batzordeari, 2025eko martxoaren 17an egindako ohiko bileran, eta Osoko Bilkurari, martxoaren 17an, eginiko biltzarrean.

Hiru aurrekontu horiek osatzen duten aurrekontu orokorraren kitapena aintzat hartuta ekitaldiko Kontu-hartzaitzak prestatu du 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorren dokumentazioa, aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua ezartzen duenari jarraituz, Udalbatzaren onespenerako jarri behar da, bidezkoa bada, hark uztailaren 31 baino lehen onetsi dezan.

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko ekainaren 16an egindako ohiko bileran, 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzearen aldeko irizpena eman zuen, eta Osoko Bilkurari helaraztea proposatu zen, hark onar dezan.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

4.- Onartzea, hala badagokio, Ostolaza Udal Liburutegiaren arautegiaren aldaketa.

Alkateak azaldu zuen Herritartasun Batzordeak, 2025eko ekainaren 17an egindako ohiko bileran, udal liburutegiaren arau aldaketaren aldeko irizpena eman zuela, eta indarrean dagoen 2003ko araudiarekin alderatuta, hauek aipatu zituen aldaketa nabarmenen gisa:

- Liburutegiaren erabilera adin guztietako pertsoneri irekitzen dela, eta liburutegiaren txartela eskatzen duen edonori emango zailei txartel hori.
- Mailegu zerbitzuan ere aldaketak daudela, Euskal Autonomia Erkidegoko Liburutegi Sistemaren barruan dauden liburutegietan erabiltzen diren mailegu arauetara egokitzeko.
- Eta, azkenik, araudi zaharrean ordenagailuei buruzko atal bat dagoela, eta, une honetan liburutegian erabilera publikoko ordenagailurik ez dagoenez, atal hori kendu egingo dela.

Gilen Garciak adierazi zuen hiru aipamen egin nahi zutela:

- Lehenik eta behin, Herritartasun Batzordean aipatu zuen bezala, udal gobernuaren jarrera aldaketa oso ona dela, eta pozez hartu dutela.
- Bigarrena, Liburutegia Denontzako taldeak eginiko lan pedagogikoari aitortza egin beharko litzatekeela, gehien bat, gauzak okerren zeudenean, ikuspegi partekatu bat lantzeko



2025SPLE0005
5.bilera: OHIKOA 2025/06/26

antolatutako solasaldiengatik, beste udal batzuetako liburuzain batzuk parte zutena, eta bertan ikusi ahal izan zer zegoen, gaina nola bideratu zitekeen, azken finean, dotore izan zela gatazka gainditze aldera.

- Eta, azkenik, euren ikuspuntutik puntu kritikoena, komunikazio alorrean, webgunean argitaratutik albisteak ez baitzuen ondo jaso azken bi urtetako errealitatea, izan ere, udal gobernua hasieratik jarrera irekia izan duela eta antzeko hainbat aipamen egiten ziren, eta, euren ustez, bi urte horietan udal gobernua jarrera itxia izan du, eta eurek ere aipatu zutela azterketarena eta saiatu zirela gaia beste modu batean bideratzen, azkenean egin dena, baina albistean udal gobernuak bakarrik aipatzen dela, lan partekatuta izan denean, eta denon artean eman zaiola erantzuna. Batzordean era jarrera proaktiboa izan dutela, azken finean, helburua zelako Debako Udala bezala denok batera irtetea, eta hori albistean ez zela jasotzen.

Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen onartzea Ostolaza Udala Liburutegiaren arautegiaren aldaketa.

5.- Onartzea, hala badagokio, «Ekainak 28, Sexu Askapenaren eta LGTBI + Harrotasunaren Nazioarteko Eguna» adierazpen instituzionala.

Alkateak adierazpena irakurri zuen:

«Ekainak 28, Sexu Askapenaren eta LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

Aurten ere, ekainaren 28 honetan LGTBI kolektiboaren eskubideak aldarrikatu nahi ditu Debako Udalak.

Ekainaren 28a borroka eta aldarrikapen eguna da. Stonewalleko matxinadak abiapuntu izan ziren askatasun sexual eta genero askapenaren bidean, eta ordutik, mundu osoan zehar LGTBI kolektiboaren eskubideen aldarrikapenekin bat egiten duten hamaika mugimendu, kolektibo eta pertsonaren indar kolektiboak bideari jarraipena eman diote. Hainbat eta hainbat herrialdetan, eskubideak aitortzeko borroka aurrera egin du, eta jendarte askeago eta berdinzaleago baten aldeko aldarriak gero eta indar handiagoa hartu du.

LGBTI+ pertsonen bizitzak bizigarriak izateko lanean eta borrokan ari diren pertsona eta kolektibo guztiei esker azken urteetan urrats handiak eman dira gure jendartean. Ezin dugu ahaztu oraindik erronka ugari aurre egin behar diegula. LGTBIfobiaren adierazpenak, gorroto diskurtsoak eta diskriminazioak modu askotan presente baitaude gure egunerokoan eta honi aurre egitea guztion erantzukizuna da.

Deba herri anitza da, eta aniztasun horrek egiten gaitu aberats.

Herri aske eta berdinzale bat eraikitze bidean, ezinbestekoa da LGTBI+ pertsonen eskubideak erdigunean jartzea eta ulertzea herritar guztion ardura dela honen alde egitea.

Hau honela, Debako Udalak sexu askatasun eta eskubideen aldeko aldarria zabaltzeko nahi du eta diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko herri bat eraikitzen jarraitzeko konpromezua berretsi nahi du.»

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen «Ekainak 28, Sexu Askapenaren eta LGTBI + Harrotasunaren Nazioarteko Eguna» adierazpen instituzionala.

6.- Eskari eta galderak.

Gilen Garciak, komunikazioarekin lotuta, azaldu zuen, Alkateari komentatu ziola ere, azken osoko bilkuraren albistea egin zenean ez zela jaso gertatu zena, alkatearen adierazpena baino ez zela jaso, eta talde bezala adierazi nahi zutela osoko bilkuran adierazpen bat egiten badute, eta ondoren bileran landutako gaien inguruan albiste bat jasotzen bada, gutxienekoa dela talde politiko guztiek adierazitakoari aipamena egitea, adierazten dutenari eta egiten duten ekarpenei ere.

Alkateak erantzun zion egia zela komentatu zutela eta esan ziola hortik aurrera kontuan izango zutela. Komunikazio arduradunarekin ere hitz egin zutela horretaz, eta aurrerakotan Gilenek azaldutako moduan jasoko zirela.

Amaitu aurretik, Alkateak gogorarazi zuen hurrengo ohiko bilera uztailaren 23an, asteazkena, , arratsaldeko zazpitan, izango zela.

Besterik ez zegoenez, 19:10etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

